



egokiena. Beraz, euria ari duenean atera beldur barrik landareak kanpora. Hori bai, hirietan, kutsadura dela eta, ez da komeni izaten berehala ateratzea.

Sasoi honetan lorategiko landareek ez dute izango ureztatu behar askorik. Dena den, udan lorategiko belarrak eta landareek izango dute segur aski maizago ureztatu beharra. Komenigarria da ureztatzeak tresnak zein egoeratan dauden begiratzea.

Bestalde, ureztatzean erabiltzen den ur motarekin asmatzea ere garrantzitsua da landareek hazkuntza oparoa izan dezaten. Landare gehienei ur biguna gehiago gustatzen zaie gogorra baino. Beraz, komenigarria da uraren gogortasun maila zein den jakitea. Gainera, badi-ra moduak geure kabuz

landarea hazteko. Horregatik, ondo etortzen da erositako lurra baratzekoarekin nahastea.

Ureztatzea

Landarea ureztatzeak maiztasuna aldakorra izaten da, besteak beste duen lur mota edo egiten duen eguraldiaren arabera ureztatzeak beharra aldatzen delako. Bestalde, landareek behar izaten duten hezetasuna ere oso ezberdina izaten da. Horregatik, ur egarritz noiz diren jakiteko, hona gomendio txiki bat: eskuekin lurra ukitu eta duen hezetasunaren arabera jakin daiteke landarea ur egarritz dagoenetz.

Batzuetan, landarea zimela dagoela iruditzen zaigulako, ur gehiago botatzeko joera izaten da, baina ohartu behar dugu jokatze hau kaltegarria izan daitekeela landarearentzat. Izan ere, horrela, landarea piztu beharrean, itotzeko arriskua legoke.

Euri ura da landareentzat urrik

hori jakiteko: uraren gogortasuna neurtzen duten tresna bereziak saltzen dituzte denda espezializatuetan. Baina bada truku sinple bat ere horretarako oso baliagarria izan dakigukeena: loreen gainera ura bota eta sikatzeari kare arrastoak agertzen badira, ur hori gogorregia izango da landarearentzat. Posible da txorrotako ura biguntzea eta aldi berean kloroa kentzea. Horretarako, perail batean jarri behar da ura, gau osoan beratzen. Kloroa lurrindu egiten da eta karea, berriz, ontzia azpialdean pilatzen da.

Ongarriak

Landareak landatu aurretik, komeni da lurra ondo ongarritzea. Ongarri klase asko daude; baina, oro har, bi familiatan bana ditzakegu: landare loredunen-tzat potasio, fosforo eta nitrogenoz aberastutako ongarri mota erabiltzen da, normalean; landare berdeek nitrogeno kopuru gehiago eskatuko dute.

GERANIOA BIRLANDATZEA

(Scott Stevenson, EKILORE loradenda)

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



1. Buztinezko lorontzi karratu honetan birlandatuko ditugu geranioak. Barreneko zuloak adreiluz estaliko ditugu, lurra irten ez dadin. Ondoren, lorontzia lurrez bete. Lur unibertsal edo baratzekoa ere erabili daiteke.



2. Eskuekin lurra harrotu eta geranioak sartzeko zuloak egin.



3. Geranioak 40 zentimetroko lorontzi honetan sartuko ditugu. Lurra zapaldu, landarea ondo egokitu dadin.



4. Geranioak lakatzak ere landatu ditzakegu. Lakatz horiek uretan eduki daitezke, neguan sustraiak hazteko.



5. Lakatz freskoa ere landatu daiteke. Lakatzaren punta sustraiatzeko substratuarekin igurtzi.

Baratzazaintza, Frutazaintza, Lorazaintza,...

Informazio eta izen ematea

Oriamendi Pasealekua, 170. - 20.009 Donostia
Tfnoa: 943 55 20 20 / 943 55 25 53



arteaga-zabalegi fundazioa

gipuzkoa-donostia kuxaren gizarte-ekintza

EUROPAKO ELKARTEA
COMUNIDAD EUROPEA
Europako Fondo Soziala
Fondo Social Europeo



EUSKO JAURLARITZA
JUSTITIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social
Dirección de Empleo y Formación



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Empleo y Formación



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



MENDIKOI
Heziketa, Sustapena, Landa Garapena
Formación, Promoción, Desarrollo Rural

- **Lanbiderako Formakuntza:** BARATZAGINTZA BEROTEGIETAN.
- **Etengabeko Formakuntza:** FRUITONDOEN INHAUSKETA, FRUITONDOEN TXERTAKETA, FRUITONDOEN ERABILERA LOREZAINZA TEKNIKAK 1, LOREZAINZA TEKNIKAK 2, LORATEGI DISEINUA LANDARE APAINGARRIEN ERABILERA ETA EZAGUERA, BASOKO LANDAREEN EZ. ETA ER. LORE ARTE APAINGARRIAK, HIDROPONIA SARBIDEA, HIDROPONIA PRAKTIKAK UDAKO BARAZKIEN ERABILERA, UDAKO LOREEN ERABILERA NATUR GIDAK, ELIKAGAIK ETA KALITATEA, UNTXI AMEN ELIKAPENA, OILOZAINZA.
- **Haurren bisitaldiak:** NATUR ESKOLA
- **"BASERRIA" Irrati Saioa** (Loiolako Herri Irratia, Donostiako Herri Irratia; Segura Irratia)